

**Eskubide laboral eta sozialen aldeko borroka:  
ohiko moduak eta praktika berriak gatazkan**  
**Janire Landaluze eta Mikel Noval (ELA)**

Europa honek ez du ezein orekarik bilatzen. Langileriaren aurkako erasoaldi oso bat ikusten ari gara. Nagusitu den aukera politikoa prekarietatea da (soldata txikiak, behin-behinekotasuna, lanaldi partzialak, malgutasuna mugarik gabe, etab.).

Kapitala erasotzeari ekin dio maila guztietatik botere antolatua suntsitzeko asmoz, botere sindikala ere barne, noski. Sindikalismoak aurre egin behar dio joera horri, tresna erabilgarria izan behar da eredu horren hedadura geldiarazteko, bai lantokietan, bai kaleetan. ELA borroka-tresna bilakatu da langile prekarioentzat.

Egun hauetako 3 adibide:

- Kutzabank-
  - Kanpaina egin dugu, mobilizazio eta manifestazioak direla bide, euskal finantza-sistema publiko bat eskatuz. Hasiera batean kutxak banku bihurtzearen aurka azaldu ginen, eta orain haien pribatizazioa eta burtsara ateratzea eragozten ari gara. Sindikatu gisa jardun dugu, eta baita sindikatuen eta gizarte-elkarteen arteko aliantzako kide gisa ere (non gurekin batera desjabetzapenen aurkako mugimenduak eta beste elkarte batzuk ere badauden).
  - Bankuan ez dugu onartu 380 lanpostu gehiago murrizteko proposamen berri bat, oraingo honetan aurre-erretiroen bidez egin beharrekoa; eta kanpaina bat bultzatu dugu, 170 behin-behineko langileren prekarietate- eta diskriminazio-egoera hobetzeko, eta haien lan-baldintzak duinago bihurtzeko.
- Bizkaiko egoitzak- Sektore feminizatu eta prekaritzatu bat. 2013an, mobilizazioen eta lanuzteen bidez, hitzarmen blindatu bat lortu zen, lan-erreformatik babesean egoteko, hau da, hitzarmena salbuesteko aukerarik ez uzteko. Hitzarmen hura 3 urterako zen. Orain patronala blindaje hura kendu nahian dabil, soldata-murrizketak egiteko, eta lanaldia eta prekarietatea zabaltzeko. ELAk, ordezkaritzaaren %66 izanik, mahaitik jaiki da aste honetan bertan, eta mobilizazio-egutegi bat badaukagu prest.
- Laminaciones Arregui (Grupo Celsa Atlantic)- Enpresa horrek

sindikalistak errepresaliatu ditu. Izan ere, enplegua suntsitzeko orduan sindikatu jakin batzuetakoak aukeratu eta zigortu zituen. Epaitegietan arrazoia eman ziguten. Borroka hori lau urtetan luzatu da, eta bitartean enpresak sistematikoki bete gabe uzten zituen ebazpenak. Baina langileen borrokari esker, eta gizartearen sostenguari esker, hautsitako eskubideak berreskuratu dituen akordioa lortu dugu. Sindikatuak borroka horrekin izan duen engaiamendua izan da, zalantzarik gabe, garaipenaren giltzarria.

Gure iritziz ekintza sindikalaren norabidea kidegorik prekarioenen eskubideen aldeko borroka izan behar da. Borroka horretarako, sindikalismoa antolamenduaren ohiko moduez baliatu beharko da aurrerantzean ere (langileak lantokietan antolatzea inoiz baino beharrezkoagoa da, oraingo erasoei erantzuteko). Dena dela, antolakuntza egokitu behar da, aldi berean, lan-munduan gertatzen ari diren aldaketetara.

Gainera, egunetik egunera bide berriak bilatu behar dira, jarduteko eta borrokatzeko beste dinamika batzuk. Ondoren, jarduteko bi moduren adibideak aipatuko ditugu:

a) “Jai egunetan jai” kanpaina.

Gure gizartean sustatzen diren balore batzuk ez dira oso osasungarriak, horra hor kontsumoa. Eta ildo horretatik doa merkataritza-ordutegiak luzatu nahia. Euskal Herrian borroka gogorra egin dugu azken urteotan, dendak igande eta jai-egunetan ez irekitzeko. 150 metro karratutik gorako dendak ez dira irekitzen jai-egun bakar batean ere. Gurea salbuespena da Estatu espainolean, kate handien atsekaberako, eta haien esanetara dauden politikarien nahigaberako. Anakronikoak, zaharkituak, modernitatearen eta turismoaren aurkakoak garela diote, eta batzuetan indarkeriatik hurbil gabiltzala ere bai.

Sektore feminizatu horren lan-baldintzak zaintzea; lanaren, familiaren eta norberaren bizimoduak uztartzen laguntzea; denda-eredu txikiagoa eta hurbilagoa sustatzea; beste balore batzuetan oinarrituriko aisialdia bultzatzea... horrek guztiak bide eman du elkarrekin sindikalen eta sozialen arteko aliantza bat sortzera, non kontsumitzaileen elkarteak eta merkatarien elkarteak ere sartu diren helburu bakar batekin: 0 irekiera jai-egunetan. Gauza jakina da, irekiera bat irentsiz gero, Esperanza Aguirreraren eredura

joango gara halabeharrez: 365 irekiera-egun urtean, bisurteetan izan ezik, orduan 366.

b) Erresistentzia eta antolakunde sindikalen eta sozialen arteko aliantzaren proposamena.

Oso argi dugu gizarte-mobilizazioa dela ezinbesteko bidea politikak aldatzeko. Horretarako, aurre egin behar die botere ekonomikoei, finantzarioei eta mediatikoei. Oraingo status quo-ren aldekoek ezbairik gabe erabiltzen dute artilleria guztia, eta ez da makala, benetako aldaketak eragozteko. Aldaketa txikiak onargarriak izan daitezke haientzat, baina beti ere ez badute auzitan jartzen aberastasunaren gero eta banaketa bidegabeagoa. Eskatzen den aldaketa erabatekoa bada, aurrez aurreko oposizioa egingo diote, ez da bake-giroko oposizioa izango.

Politiketan horrelako aldaketa bat lortzeko, ez da nahikoa txanda dagoen gobernuak egin nahi izatea. Aldaketa-gobernuek egundoko presioak eta xantaiak jasan behar dituzte. Ezinbestekoa izango da mobilizazio eta presio soziala; erakundeen kanpotik, kaletik, jendeak, herriak eskatu eta galdatu behar du.

Gizartea desmobilizatzen bada, gobernura heldu daitezkeenengan edo heldu direnengan eskuordetzen badugu egin beharrekoa, eta dena eginda dagoela pentsatzen badugu, akabo. Gizartea desmobilizatzen bada, ez da benetako aldaketarik gertatuko.

Ezinbestekoa da aliantza sindikala eta soziala bilbatzea, gero politikak zeharo aldatzearen alde egiteko. Aliantza hori burujabea izan behar da botere ekonomikotik eta alderdi politikoetatik. Behar den gizarte-mugimenduak diagnostikoa egiteko gaitasuna eta eragiteko ahalmena izan behar ditu. Eta hori baliagarria da bai Euskal Herrirako, baita Europa osorako ere.

Norabide horretarantz gabiltza.

- 6 greba orokor. 2009ko maiatzean, politiken aldaketa eskatzeko. Osterantzean, esaten genuen orduko hartan, murrizketak etorriko dira; 2010eko ekainean, Zapateroren lan-erreformaren aurka; 2011ko urtarrilean, Zapateroren, CCOO eta UGT sindikatuen eta CEOE patronalaren artean adosturiko pentsioen erreformaren kontra (erretiro-

adina atzeratzea, pentsio berriak jaistea, pentsioen eroste-ahalmenaren galera orokorrerako oinarriak jartzea); 2012ko martxoan, Zapateroren murrizketen aurka; 2012ko irailean Rajoyren lan-erreformaren aurka; 2013ko maiatzean, pentsioen erreforma berri baten iragarpena dela-eta, eta eskubide laboral eta sozial duinen alde.

- Azken greben eta mobilizazioen deialdiak plataforma batetik egin genituen, beste antolakunde sindikal eta sozial batzuekin batera, oinarrizko helburu batzuk adosturik: sistemari alternatiba erabateko bat emateko beharra (adabakirik ez), eta antolakunde handiak eta txikiak lankidetzan eta elkarlanean aritzea onartzea. Praktikan esparru bat sortu zen sindikatu guztiekin, CCOO eta UGTekin izan ezik (gizarte-elkarrizketa gaitzestea beste printzipio bat izan da), eta gizarte-mugimendu gehienekin (feminismo-arlokoak, bazterketaren aurkako borrokakoak...)
- Azken greba orokorrera deitu genuenean parte hartze prozesu bat abiaraztea erabaki genuen, nagusi den eredu ekonomiko-sozialaren aurrean gure alternatibak bateratzeko asmoz. Eta horren ondorioz sortu da Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta.
- Behin karta hori adostu ondoren, beste pauso bat ematea erabaki genuen: interpelazio politikoa. Eta horren haritik 2015eko martxoaren 14ko manifestazioak egin ziren, programa sozial baten aplikazioa eskatuz.
- Azkenik, urriaren 24an Alternatiben Herria izan zen Bilbon. “Sistema aldatu, ez klima” Alternatibaren deiari erantzunez jendez bete ziren Bilboko kaleak, benetako alternatibak egon badaudela erakusteko. Horra hor, finantza etikoak, elikagaien subiranotasuna, energia berriztagarriak, eta abar. Prestakuntza-saioak eta parte hartzeko aukerak elkartu ziren jai-giroan.

Oraindik badago zer hobetu eta zer egin, zalantzarik ez. Langile jendearen beharrianak artatzea etengabeko erronka da. Baina erabat sinetsita gaude zein den bidea: borroka eta aurre egitea, bai lantokietan, bai kalean. Antolakuntzaren eta borrokaren bideak askotarikoak dira, batzuk zaharrak besteak berriak, baina bide horietatik goaz Euskal Herrian, sindikalismoa bizi-bizirik dagoelako erakusgarri.

Sindikatuako militante zahar batek zioenez: oraingo garaia zirrargarria da. Garai honetan bizi gara, eta gure esku dagoen guztia egingo dugu erronkari behar bezala erantzuteko. Eskerrik asko.

